

IKASTOLAK



2008 ABENDUA

Informatzen

NEGU GOGORRARI AURPEGIA EMAN

Atzo, abenduaren 2an, Ikastoletako Lan-Hitzarmeneko mahaia bildu zen Lasarten.

Ez dugu ezer berririk eta betiko moduan gure Lan Hitzarmena airean dago.

Atzoko bilera garbi azaldu zitzaion bai Partaideri eta bai EIBri ezertan aurrera egin nahi bada proposamenen bat jarri beharko dutela mahai gainean. Hori entzunda, Partaide eta EIBek hilabeteko epea eskatu ziguten proposamenen bat lantzeko.

Beste apartekorik gabe bukatu zen bilera.
Sartu ginen bezala atera ginen, esku hutsik.

Egoera ikusirik LAB, ELA eta STEE-EILASek bilera egin genuen.

Bertan egiaztaturik, gure aldarrikapenek ez dutela oraingoz erantzunik jaso, mobilizazioekin aurrera egitea erabaki genuen.

Hauxe duzue mobilizazioen egutegia:

- Laster batean eskutitza jasoko duzue "Olentzerori" zuzendua. Eskutitza sinatu mesedez eta delegatuei helarazi.
- Eskutitz hauek Partaide eta Hezkuntza sailari zuzenduta daude.
- Abenduak 11n delegatuok Olentzerorekin kale jira errebindikatiboa egingo dugu.
 - .. Partaideko bulegoan (Lasarte) goizeko 11tan, gutunak entregatuko ditugu.
 - .. Beste horrenbeste egingo dugu Donostiako Kristau Eskolaken bulegoan.
 - .. 13:00ean Donostiako delegaritza aurrean utziko ditugu gure gutunak.
- Abenduaren 17an, goizeko 11tan elkarteratzea Gasteizko Legebiltzarraren aurrean

Momentuz abenduko egitaraua hauxe da.

Berrero ere urtarrilean jarraitu beharko dugu hasia dugun borrokari.

FINANTZIAZIO AKORDIOA ORAIN, LAN BALDINTZAK HOBETZEKO



Olentzero Maitea:

Ni, ikastola bateko langilea naiz eta, jakingo duzunez, aurten oso ondo portatu naiz. Egunero ikastolara joan naiz lan egitera, eta benetan nire ahalmen eta gogo guztia jarri dut dena ondo egiteko. Ikastolako sukaldaria naiz, eta egunero-egunero ikasle eta langileentzako aurrena bazkari goxoak gertatu ditut eta ondoren, beti irribarretsu, jatekoa banatu diet; jan gartsu eta mizkinei, jangelako txikienei, gozo-gozo hartu eta jaten lagundu diet. Zerbait ospatzeko zegoen egunetan bazkari bereziak ere prestatu izan ditut oparo.

Esandako hau guztiagatik zera eskatzen dizut:

1.- 2008ko lan hitzarmena sina dadila. Eta eskatzen hasita hitzarmen horren oinarrizko ildoak 2005ean "Dedikazio eremuan" azaltzen direnak izatea eskatuko nizuke.

Eskatutakoa emango didazulakoan, horren esperoan geratzen naiz... Baina lanpetuta zabiltzalako, zuk zeuk ezin baduzu eskaera hori bete, mesedez esaezu Hezkuntza Sailari, Partaideri eta EIBri egin dezatela lan hori zure izenean.

Muxu handi bat



Olentzero Maitea:

Ni, ikastola bateko langilea naiz eta, jakingo duzunez, aurten oso ondo portatu naiz. Egunero ikastolara joan naiz lan egitera, eta benetan nire ahalmen eta gogo guztia jarri dut dena ondo egiteko. Ikasle, guraso eta lankideen beharrak eta eskaerak ahalik eta azkarren eta ondoen asebate ditut. Ikastolako harrera-lana egiten dut pozez, eta ikastola bati dagozkion paper, gutun, idatzi, eta dokumentuak behar dituenaren eskura jartzen ditut; deiak jaso eta pasatzen ditut, bileretarako oharrak pasatzen ditut, eta hamaika lan gehiago.

Esandako hau guztiagatik zera eskatzen dizut:

1.- 2008ko lan hitzarmena sina dadila. Eta eskatzen hasita hitzarmen horren oinarrizko ildoak 2005ean "Dedikazio ereduan" azaltzen direnak izatea eskatuko nizuke.

Eskatutakoa emango didazulakoan, horren esperoan geratzen naiz... Baina lanpetuta zabiltzalako, zuk zeuk ezin baduzu eskaera hori bete, mesedez esaezu Hezkuntza Sailari, Partaideri eta EIBri egin dezatela lan hori zure izenean.

Muxu handi bat



Olentzero Maitea:

Ni, ikastola bateko langilea naiz eta, jakingo duzunez, aurten oso ondo portatu naiz. Egunero ikastolara joan naiz lan egitera, eta benetan nire ahalmen eta gogo guztia jarri dut dena ondo egiteko. Ikastola zaintzen dut ,eta ikasle, guraso eta lankideen beharrak eta eskaerak ahalik eta azkarren eta ondoen egiten ditut. Lehena naiz ikastola irekitzen eta azkena ixten. Ikasturte berriari hasera emateko dena prest izaten dut eta ikastolako festa eta ospakizunetan isileko lana egiten dut.

Esandako hau guztiagatik zera eskatzen dizut:

1.- 2008ko lan hitzarmena sina dadila. Eta eskatzen hasita hitzarmen horren oinarritzko ildoak 2005ean "Dedikazio ereduan" azaltzen direnak izatea eskatuko nizuke.

Eskatutakoa emango didazulakoan, horren esperoan geratzen naiz... Baina lanpetuta zabiltzalako, zuk zeuk ezin baduzu eskaera hori bete, mesedez esaeizu Hezkuntza Sailari, Partaideri eta EIBri egin dezatela lan hori zure izenean.

Muxu handi bat



Olentzero Maitea:

Ni, ikastola bateko langilea naiz eta, jakingo duzunez, aurten oso ondo portatu naiz. Egunero ikastolara joan naiz lan egitera, eta benetan nire ahalmen eta gogo guztia jarri dut dena ondo egiteko. Ikastolako garbitzailea naiz, ikastola garbi eta txukun eduki dut eta ikasle, eta lankideen eskaerak ahalik eta azkarren eta ondoen egin ditut. Kristal, mahai, laborategi, ordenagailu, aretoak, gela, jolastoki eta komunak txukun eta garbi zaindu ditut, ikastolako partaide guztiak gustura sentitzeko.

Esandako hau guztiagatik zera eskatzen dizut:

1.- 2008ko lan hitzarmena sina dadila. Eta eskatzen hasita hitzarmen horren oinarritzko ildoak 2005ean "Dedikazio ereduan" azaltzen direnak izatea eskatuko nizuke.

Eskatutakoa emango didazulakoan, horren esperoan geratzen naiz... Baina lanpetuta zabiltzalako, zuk zeuk ezin baduzu eskaera hori bete, mesedez esaeizu Hezkuntza Sailari, Partaideri eta EIBri egin dezatela lan hori zure izenean.

Muxu handi bat



Olentzero Maitea:

Ni, ikastola bateko langilea naiz eta, jakingo duzunez, aurten oso ondo portatu naiz. Egunero ikastolara joan naiz lan egitera, eta benetan nire ahalmen eta gogo guztia jarri dut dena ondo egiteko. Ikastolako ikasleekin autobusean zaintzaile lanetan ibiltzen naiz. Goizean loaren urratsak oraindik ongi kendu ezinean dituztenean han egoten naiz ni esnaera goxatzeko asmotan. Ikastolaren ate aurrera iristen direnean egun ona opaz agurtzen ditut eta zerbait ahazten bazaie nik jasotzen dut. Ikastola eguna amaitzen denean, geltoki bakoitzean etxekoan eskuetan uzten ditut ikasleak "Bihar arte!" adeitsua batekin agurtuz.

Esandako hau guztiagatik zera eskatzen dizut:

1.- 2008ko lan hitzarmena sina dadila. Eta eskatzen hasita hitzarmen horren oinarrizko ildoak 2005ean "Dedikazio ereduan" azaltzen direnak izatea eskatuko nizuke.

Eskatutakoa emango didazulakoan, horren esperoan geratzen naiz... Baina lanpetuta zabiltzalako, zuk zeuk ezin baduzu eskaera hori bete, mesedez esaezu Hezkuntza Sailari, Partaideri eta EIBri egin dezatela lan hori zure izenean.

Muxu handi bat



Olentzero Maitia:

Ni, ikastola bateko langilea naiz eta, jakingo duzunez, aurten oso ondo portatu naiz. Egunero ikastolara joan naiz lan egitera, eta benetan nire ahalmen eta gogo guztiak jarri ditut dena ondo egiteko. Ikasleekin egon naiz behar izan diren ordu guztiak, nahiz eta hitzarmenean gutxiago ezarri. Horretaz aparte, gurasoekin hainbat bilera eta elkarrizketa izan ditut; kalitate, normalkuntza, ebaluaketa eta hainbat gauza desberdinetarako bildu naiz, baita jolastokia zaindu, eta batzuetan, nire lankideak gaixorik egon direnean, bere klasera joan naiz zainketa egitera. Horrexegatik, askotan nire etxean ikasgaiak prestatu edota azterketak zuzendu ditut. Astebete egon naiz ikasleekin bidaiatzen eta joan den astean eskiatzera eraman ditut.

Esandakoagatik zera eskatuko nizuke:

1.- 2008ko hitzarmena sinatzea. Lan hitzarmen honetako oinarritzko ildoak 2005ean "Dedikazio ereduan" azaltzen direnak izatea nahiko nituzke.

Eskatutakoa beteko duzulakoan geratzen naiz, eta ezin baduzu, batez ere lanagatik, esan Hezkuntza Sailari, Partaideri eta EIBri ekartzeko.

Muxu handi bat